

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRÓNGO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lurzatiak lagatzea "Barrón" izeneko VI-10053 ehiza barrutia berritzeko; ehiza barruti horrek Barróngo lursailak hartzen ditu

Barróngo Administrazio Batzarra herri horretako lurak barne hartzen duen "Barrón" izeneko VI-10053 ehiza barrutia berritzea izapidetzen ari da.

Kontuan hartuta ehiza barruti hori berritzean barrutirako ezarritako eremuaren barruko lurzati guztiak sartuko direla, titulartasun pribatukoak zein publikokoak izan, iragarki honen bidez horren berri ematen da, eragindako lursailen jabeek Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 21. artikuluan aipatzen den baimena eman ahal izan dezaten.

Iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo hamabost egun baliodunetan Barróngo Administrazio Batzarrari kontrakoa adierazteko idazkirik aurkezten ez dioteneke isilbidezko baimena eman dutela ulertuko da, eta administrazio batzarrak baimena izango du ezarritako epean desadostasunik azaldu ez duten jabeen lurzati edo finka guztiak ehiza barrutian sartzeko.

Lurzati publikoen barruan administrazio batzarraren onura publiko mendi hauek daude:

533 "PEÑAMIL"

535 "LOS RISCOS"

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Barrón, 2026ko ekainaren 15a

Errejidore-lehendakaria

JUAN JOSÉ FERNÁNDEZ DE PALOMARES GONZÁLEZ